

ERMUKO PIRAGUISMO TALDEA

Ez dira arraunlariak baina...

Hasiera batean, irailaren 17an Aixolako urtegiaren egin behar zen "Ermuko III. piraguismo txapelketa"ren berri jasotzeko asmoz jo genuen antolatzaileengana, eta aipatutako talde honek egin eta eskaintzen duena jakindakoan gudan harridura sortu zen. Zelan da posible ermuarrok herriko hainbat talderen jardueraz horren gutxi jakitea? Bestalde, senak Ermuan gu bezain despistaturik dabilen jende ugari dagoela zioskun, eta mezulariarena ahalik eta hoberen egitera eman genuen gure esfortzua. Hona hemen deskubritu genuenaren berri:

1986. urtetik dago Ermuan piraguismo taldea. Hasiera bateko jende multzotik (40 pertsona baino gehiago), bi lagun izatera pasatu zen hirugarren urtean eta egun 15 pertsona inguruk osatzen dute taldea. Aixolak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz "pista" deritzan modalitatean jarduten zuten, distantzia luze samarrak eginez (6 km), honek esijitzen zuen prestakuntz gogorrek, bidaiak antolatzeko zailtasunak eta abarrek, kirol mota hau noizean behinkako denborapasa kontsideratzera behartu zuten arte. Hauexek izan ziren klubaren garai gogorrenak.

Klubak Aixolak duen ekipoak mantentzeko eta irteerak antolatzeko diru urriekin kontatzen du, taldekideen hitzetan "Udalak kirol talde gehienei, hiru urtean behin edo, batzartzen den kirol kontseiluaren bitartez, ematen digun diru apurra, taldekideok jartzen dugun urteko kuota, eta udaberriean zein udan antolatzen ditugun ikastaroek uzten digutena". "Ikastaroetan oinarritzko teknikak irakasten ditugu, hortik aurrera nahi duena bere kabuz ibil dadin eta ondo pasa dezan. Jendeak gehiago nahi izango balu, badaude sakontzeko



SANTOS VEGA

Artikuluaren aipatutako "Ermuko III. piraguismo txapelketa" k eguraldi txarra izan zuen protagonista eta ostarte batzuk aprobetxatuz, proba lagunaren artean ospatu zen, Plentziako klubaren parte hartzea izanik azpimarragarria.

ikastaroak, hondartza eta ibaietan ibiltzeko. Gainera, duela hiru urte erosi genituen 14 piraguak oso aproposak dira horretarako, baina oraingoz ez dugu horrelako ikastarorik antolatu, eta holakoetan taldekideak bakarrik auzartzen gara". Ikastaro hauek bi asteburutan egiten dituzte, guztira 10 ordu inguru, eta aurten, esaterako, 40 pertsonak hartu dute parte, hauen artean neska ugari izanik, klubean bat ere ez badago ere.

Guztira, egon daitezke Ermuan ehundaka pertsona talde honen bidez kirol mota "ez ohizko" honekin kontaktua izan dutenak eta are gehiago edukitzea gustatuko litzaiekenak, eta baita ere beren esku dagoenik orain arte jakin ez dutenak. Hona hemen bada garrantzizko datuak: Taldea ostiralero biltzen da asteburuko irteera antolatzeko, arratsaldeko 8:30etan "Gure Etxea"ren 3. solairuan.

Manuel Moreno

MENDIOLA JATETXEA

Erdikokale, 19, Tlf.: 943-172243
48260 ERMUA

QUETZAL

Opari denda

Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62

E I

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 38 24

HARATEGIA

URDAITEGIA

ROSA MARI

Baserriko okela
Etxeko odoloste eta txorizua

Zubiaurre, 22
Tfnoa. 17 06 80